

10. KOSTU EGITURA

Gure proiektua aurrera ateratzeko kostuak minimizatu ditugu. Horretarako, Damianek duen ezagutza eta zaletasunarekin egingo dugu.



Aurreztutako dirua

- Ez dugu ekipo informatikoetan dirurik inbertitu behar, izan ere, gureak ditugu.
- Aplikazioan eskainitako zerbitzuak guk geuk aurrera aterako ditugunez, irabazitako dirutik ez dugu ezer deskontatuko.
- Ez dugu lokaleko alokairurik ordaindu behar, bezeroen etxeetan lan egiten dugu eta.
- Materiala ez dugu ordainduko (janaria eta partikularrak emateko), lan egindako elkarteek hauek ahalbidetzen gaituztelako.

Ordaindu beharrekoa

- APP (Apple Store): Aplikazioa martxan jartzeko eta webgune horretatik jendea aplikazioa instalatzeko beharrezkoa duguna.
- Udalaren baimena: Baimena eskatu behar dugu enpresa martxan jartzeko.
- Iragarkietan publizitatea lortzeko: gure proiektuak iragartzeko, lehendik erakutsitako lekuetan iragarriko dugu (*Gaztea, Berria eta Instagram*), eta hauek ez dira oso garestiak. Beraz, hasieratik gastu eta inbertsio handiegiak ez egiten ziurtatu gara. Horrela, geroago, gure etekinak handiagoak izango dira.